



AIARAKO UDALAK 2020ko EKAINAREN 15ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna
Montse Angulo Solloa andrea
Susana Martín Benavides andrea
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna
Itxaso Gorbeña Allende andrea
Karmele Población Martínez andrea
Marian Mendiguren Mendíbil andrea
Iratxe Parro Uzquiano andrea

EZ DIRA BERTARATU

Unai Campo Arenaza jauna

IDAZKARIA

M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hogeiko ekainaren hamabostean, hemeretziak eta hamabost minutu direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko (modu telematikoa). Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki erakundearen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzko azaroaren 28ko 1569/1986 Errege Dekretuaren 79. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

José Antonio Bartolomé Pesquera zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ezin duela irudia aktibatu bilkuran ikusi eta entzun dezaten, baina, halere, berak entzuten duela; beraz, eskatu du bilkura has dadila, bera saiatuko baita arazoa konpontzen.

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta, besterik aipatu gabe, eguneko **AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2020ko maiatzaren 21eko ohiko osoko bilkuraren akta.-

Jarraian, Udalbatzari aurreko aktaren berri eman zaio, 2020ko maiatzaren 21eko ohiko osoko bilkurari dagokiona.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) dagoeneko egin izan den behaketa bat egin du, alegia, mozioen inguruko puntuetan bozketaren emaitzen aktaren idazkera oso nahasia dela azaldu du.

2.- Koldo Mendioroz Goldaraz jauna Aiarako Udaleko zinegotzi karguaz jabetzea, José Antonio Gorbea Alonso jauna ordezkatzeko.-

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio dagoeneko jaso dela Hauteskunde-Batzorde Zentralak bidalitako Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) Udalbatzako kidearen egiaztgutuna, José Antonio Gorbea Alonso jauna ordezkatu dezan, azken horrek zinegotzi kargua utzi baitu.

Beraz, zinegotzi hautetsiak kargua hartuko du, Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari Buruzko Lege Organikoaren (LOREG) 108.8 artikulua betez eta apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuaren arabera; horretarako, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunari honako galdera hau egin dio: "Zure kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzu zinegotzi karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzula, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarriko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzula?", eta zinegotzi hautetsiak honako hau erantzun du:



“Bai Euskal Errepublika lortu arte legeak hala behartuta hitz ematen dut.”

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV), Udalbatzaren izenean, zinegotzi berriari bere kargua betetzean zorte ona opa dio.

3.- 2020ko uztailaren 12an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako hauteskunde-mahaiak osatzeko presidenteak eta kideak izendatzea.-

IKUSI DA.- 2020ko otsailaren 11n EHAAn argitaratu zen Lehendakariaren otsailaren 10eko 2/2020 Dekretua, Eusko Legebiltzarra desegin eta 2020ko apirilaren 5eko hauteskundeetarako deia egiten duena.

IKUSI DA.- 2020ko martxoaren 18an EHAAn argitaratu zen Lehendakariaren martxoaren 17ko 7/2020 Dekretua. Aipatutako dekretuaren bidez, indarrrik gabe utzi zen Eusko Legebiltzarrerako 2020ko apirilaren 5eko hauteskundeak egitea, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisialdia dela-eta, eta beste deialdi bat egitea erabaki zen.

IKUSI DA.- 2020ko maiatzaren 19an EHAAn argitaratu zen Lehendakariaren maiatzaren 18ko 11/2020 Dekretua, 2020ko uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako deia egiten duena.

IKUSI DA.- Hauteskundeei buruzko Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikuluan ezartzen dela hauteskunde-mahaiak eratzea udalen ardura da, eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeek gainbegiratuko dute.

IKUSI DA.- Hauteskunde Batzorde Zentralak aipatutako artikularen interpretazio doktrina finkatua ezarri du eta horren bidez adierazten da zozketa soilik Udalbatza Osoari dagokiola.

AINTZAT HARTU DA.- Mahai bakoitzeko presidentea eta bokalak zozketa publiko bidez izendatzen dira dagokien mahaiko hautesle-zerrendan sartutako pertsona guztien artean.

IKUSI DA.- Aurreko guztia, eta aipatutako zozketari ekin zaio.

Zozketa amaitzean, bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez **ADOSTU DUTE:**

LEHENENGOA.- Hauteskunde-mahaietako presidenteak eta kideak izendatzea (titularrak eta ordezkioak) jarraian adierazitako pertsonen:

– **HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 001, MAHAIA: A**

PRESIDENTEA: PRESIDENTEAREN 1. ORDEZKOA: PRESIDENTEAREN 2. ORDEZKOA: LEHEN BOKALA: LEHEN BOKALAREN 1. ORDEZKOA: LEHEN BOKALAREN 2. ORDEZKOA: BIGARREN BOKALA: BIGARREN BOKALAREN 1. ORDEZKOA: BIGARREN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	RAMÓN ALDAMA ARBAIZA AMAIA ARBAIZA VALERO JOSEBA IZQUIERDO ARENAZA JULIA JIMENEZ CONDE ASIER GONZALEZ RUBIO JOSU ALBISUA FUENTES JOSE MARIA GOLPE SANCHEZ JOSE MARIA BASALDUA OBALDIA YOLANDA IRABIEN ORTUETA
---	---



– **HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 001, MAHAIA: B**

PRESIDENTEA:	JUAN FRANCISCO LOPEZ NARANJO
PRESIDENTEAREN 1. ORDEZKOA:	IGNACIO LOPEZ SANCHEZ
PRESIDENTEAREN 2. ORDEZKOA:	ROSA MARIA PEREZ MENCHACA
LEHEN BOKALA:	NAIARA URQUIJO ARBAIZAGOITIA
LEHEN BOKALAREN 1. ORDEZKOA:	GOIZANE TRUEBA ESCANDON
LEHEN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	BENITO LLANO ESCOBAL
BIGARREN BOKALA:	UNAI REZOLA GOIKOETXEA
BIGARREN BOKALAREN 1. ORDEZKOA:	MARIA PILAR SEIJO COSTAS
BIGARREN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	IRANTZU LARRINAGA MOSQUERA

– **HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 001, MAHAIA: C**

PRESIDENTEA:	AINARA GARCIA SANCHEZ
PRESIDENTEAREN 1. ORDEZKOA:	MARIA ANGELES ROJO CHABARRI
PRESIDENTEAREN 2. ORDEZKOA:	AINARA PARRO UZQUIANO
LEHEN BOKALA:	PABLO HUERTA ARTECHE
LEHEN BOKALAREN 1. ORDEZKOA:	MARIANO MENOYO CAMPO
LEHEN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	JESUS MARIA VILLANUEVA CHABARRI
BIGARREN BOKALA:	ANNE ZURIMENDI GANZEDO
BIGARREN BOKALAREN 1. ORDEZKOA:	MERCEDES DE LA SOTA ALONSO
BIGARREN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	MARTA DIEZ LAZCANO

– **HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 002, MAHAIA: A**

PRESIDENTEA:	GOTZON ARRAZURIA ORTIZ DE BARRÓN
PRESIDENTEAREN 1. ORDEZKOA:	MARIA JESÚS GARCIA ALARCIA
PRESIDENTEAREN 2. ORDEZKOA:	MAITE HERNÁNDEZ LÓPEZ
LEHEN BOKALA:	DAVID FERNÁNDEZ HERNANDO
LEHEN BOKALAREN 1. ORDEZKOA:	MARIA JOSE IBARS CERVERA
LEHEN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	AITOR BALZA MONTERO
BIGARREN BOKALA:	JESUS MARIA GAVIÑA BARBARA
BIGARREN BOKALAREN 1. ORDEZKOA:	MERCEDES GALLARDO
BIGARREN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	MARIO GARCIA FERNANDEZ

– **HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 002, MAHAIA: B**

PRESIDENTEA:	KEPA LARRINAGA ZULUAGA
PRESIDENTEAREN 1. ORDEZKOA:	SILVIA SACHEZ MARTÍNEZ
PRESIDENTEAREN 2. ORDEZKOA:	JUANA ZALBIDE OZAETA
LEHEN BOKALA:	HECTOR MENDIVIL SARACHAGA
LEHEN BOKALAREN 1. ORDEZKOA:	NURIA NAVEIRA ESTEBAN
LEHEN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	AMAYA SANTOS GUERRERO
BIGARREN BOKALA:	MODESTO MARIN TAMAYO
BIGARREN BOKALAREN 1. ORDEZKOA:	URTZI MARCUARTU ARRAZURIA
BIGARREN BOKALAREN 2. ORDEZKOA:	ALEJANDRO ZOBARAN ARRIOLA

BIGARRENA.- Aipatutako izendapena interesdunei jakinaraztea. Jakinarazpenarekin batera, mahaietako kideei helaraziko zaie beren funtzioei buruzko argibide-eskuliburua, Hauteskunde Batzorde Zentralak gainbegiratutakoa.



4.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, Udalbatzako kideek alarma-egoeran bileren asistentziagatiko zenbatekoei uko egiteari buruzkoa.- Ondoren, alarma-egoerak zirauen bitartean Udalbatzako kideek bileren asistentziagatiko zenbatekoei uko egiteari buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman zaio Udalbatzari. Proposamen horrek honela dio:

"ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena.

IKUSI DA.- Ahal den neurrian, birusaren hedapenari aurre egiteko hartu diren biztanleria konfinatzeko neurrien ondorioz, Udalbatzako kideen arteko harremanak modu telematikoan gauzatu zitezten ahalegina egin da.

IKUSI DA.- Udalbatza Osoak, 2019ko uztailaren 4an egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, onartu zuen inolako arduraldirik (lanaldi osoko zein partzialekoa) duten Udalbatzako kideek jarraian aipatutako zenbatekoak jasoko zituztela kide anitzeko organoetara bertaratzeagatik:

- | | |
|---|---------------------|
| - OHIKO BILKURETARA bertaratzeagatik | 170,00 euro gordin. |
| - EZOHIKO BILKURETARA bertaratzeagatik | 30,00 euro gordin. |
| - INFORMAZIO BATZORDEETARA bertaratzeagatik | |
| * Batzordekide gisa | 30,00 euro gordin. |
| * Batzordeko presidente gisa | 240,00 euro gordin. |

Aipatutako guztiagatik, proposatzen da Aiarako Udaleko Udalbatza Osoko zinegotziek beren diru-kopuruei uko egin diezaietela, COVID-19ak sortutako osasun larrialdia ondoz 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera ezarri zenetik, egoera hori amaitu arte.

Arespalditzan.- JARDUNEKO ALKATEA.- Sin.: Iñigo Pinedo Vadillo

Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du pozten dela berak aurrekontu-proiektuari buruz egindako alegazioetako bat kontuan hartu delako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du, momentu honetan, onetsitako proposamen bat Batzordera bidali dela bertan bozkatzeko.

Kontu Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrak, 2020ko apirilaren 7ko bilkuran erabaki horren aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta aho batez erabaki du ohiko bozketan, idatzitako moduan transkribatutako erabaki-proposamena onartzea.

5.- 2020ko udal aurrekontua onartzea. Ondoren, Udalbatzari 2020rako udal aurrekontua onartzeko proposamenaren kontu eman zaio. Honako hau dio aipatutako proposamenak:



"2020ko UDAL AURREKONTUA ONESTEKO ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- 2020ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Kontu Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrek 2020ko ekitaldirako udal aurrekontuen prestaketaren kontu eman zuten. Aipatutako aurrekontua, bai gastuetan bai diru-sarreretan, 2.299.867,90 eurokoa zen, eta udal-talde politikoei epea eman zitzaien, egoki bazeritzoten, 2020rako aurrekontu-proiektuaren zuzenketak aurkezteko, haiei emandako zuzenketa-ereduen arabera.

IKUSI DA.- 2020ko martxoaren 16an, behin osasun-larrialdi egoeraren ondoriozko alarma-egoera deklaraturik, Udaltzako zinegotziei jakinarazi zitzaien 2020ko aurrekontu-proiektuari zuzenketak aurkezteko epea (martxoaren 23ra artekoa) martxoaren 30era arte luzatu zela.

IKUSI DA.- Xede horretarako epean zuzenketak aurkeztu ziren, eta batzuk onartu eta onetsi beharreko aurrekontuen proiektuan sartu ziren.

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiak kalkulatu duela COVID-19 pandemiaren eraginez diru-sarreraren jaitsieraren ondorioz, Aiarako Udalarik dagokion Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren (TEFFF) 2020rako likidazio-aurreikuspena 884.821,18 eurokoa izango da, hau da, hasiera batean aurreikusitakoarekiko 294.984,29 euroko aldea dago.

AINTZAT HARTU DA.- Diru-sarreraren beharakada horrek eskatzen du jakinarazitako udal-aurrekontuetako hasierako gastuak murriztea. Xede horrez, 2020rako aurrekontuen proiektuan funtsezko aldaketak egingo dira, zenbatekoak benetako diru-sarreraren aurreikuspenetara egokitzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Aurreko guztia gorabehera, Gobernu Taldeak (2019ko ekitaldiaren likidazioaren ondorioz sortutako gastu orokorren diruzaintza-geldikinen kargura) ezinbestean ordaindu behar diren gastuak ordainduko ditu; beraz, konpromisoa hartzen du (kreditu gehigarriko aurrekontu aldaketaren espedientearen bidez) jarraian adierazitako aurrekontu aplikazioak kredituz hornitzeko, gainontzeko udal-talde politikoei bermetzat.

Aurreko guztia dela eta, Udaltzako honako erabaki hau onar dezan proposatu dute:

Lehenengoa.- Udaltzako honetako 2020rako aurrekontu orokorrari hasierako onespina ematea. Aurrekontu horrek 2.020.434,53 euro ditu, bai diru-sarreraren, bai gastuen egoeran, eta bere kapituluko laburpena honako hau da:

KAPITULUAK	KAPITULU BAKOITZEKO DIRU-SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK	Zenbatekoa (€)
	A) ERAGIKETA OROKORRAK	2.020.434,53 €
1	ZERGA ZUZENAK	672.812,09 €
2	ZEHARKAKO ZERGAK	30.000,00 €
3	TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK	246.070,98 €
4	TRANSFERENTZIA OROKORRAK	1.066.658,57 €
5	ONDASUNEN DIRU-SARRERAK	4.892,89 €
	B) KAPITAL-ERAGIKETA	0,00 €
6	BENETAKO INBERTSIOAK ETA GAINONTZEKO HIRIGINTZA-JARDUERETATIK ERATORRITAKO DIRU-SARRERAK BESTERENTZEA	0,00 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	0,00 €



8	FINANTZA-AKTIBOAK	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €
	DIRU-SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA	2.020.434,53 €

KAPITULUA	KAPITULUEN GASTUEN HASIERAKO GASTUAK	ZENBATEKOA (€)
	A) ERAGIKETA OROKORRAK	1.952.165,09€
1	LANGILEEN GASTUAK	616.852,34 €
2	ONDASUN OROKORRAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA.	762.205,76 €
3	FINANTZA-GASTUAK	2.000,00 €
4	TRANSFERENTZIA OROKORRAK	565.606,99 €
5	KREDITU OROKORRA ETA GAINONTZEKO AURREIKUSI GABEKO GASTUAK.	5.500,00 €
	B) KAPITAL-ERAGIKETA	68.269,44 €
6	BENETAKO INBERTSIOAK	68.269,44 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	0,00 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €
	GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA	2.020.434,53 €

Bigarrena.- Konpromisoa hartzea, 2020ko udal aurrekontua behin betiko onartuta eta indarrean dagoenean, aipatutako kreditu gehigarriaren aurrekontu-aldaketako espedientea osoko bilkuran aurkezteko. Espediente hori 2019ko ekitaldiko likidaziotik eratorritako gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin likidoaren kargura dago, adierazitako kreditua honako aurrekontu-aplikazioei emateko:

- 943.434000 Udalerriko administrazio-batzordeen finantzaketa-transferentzia (136.304,70 €).
- 336.481008 Aranzadi Zientzia Elkartearen dirulaguntza (BABIOKO INDUSK.) (10.000,00 €).
- 323.622000 Hobekuntzak Etxaurren Ikastolan (10.000,00 €).
- 943.734000 Administrazio-batzordeen dirulaguntza obregatik (35.000,00 €).
- 943.734001 Administrazio-batzordeen dirulaguntza, ordainsari teknikoengatik (35.000,00 €).

Era berean, Udalari emandako dirulaguntzen kasuan, udal-ekarpenari aurre egiteko behar diren kreditu osagarriengatik aurrekontu-aldaketa guztiak izapidetuko dira eta 2019ko ekitaldiaren likidaziotik eratorritako gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin likidoaren kargura kobratuko dira.

Hori guztia, Gobernu Taldeak egokitzat jotzen dituen gainerako aurrekontu-aldaketak izapidetzeari kalterik egin gabe.

Hirugarrena.- Aurrekontuak exekutatzeko udal-araudia onestea.

Laugarrena.- Lanpostu-zerrenda eta aurrekontuari erantsitako gainontzeko eranskinak onestea.

Bosgarrena.- 2020-2021eko dirulaguntzen plan estrategikoa behin betiko onestea, 2020ari dagozkion dirulaguntzekin.



Seigarrena.- Espediente hori jendaurrean jartzea, hamabost egun balioduneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Zazpigarrena.- Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da aipatutako epean erreklamaziorik aurkeztzen ez bada. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazio horiek ebazteko.

Zortzigarrena.- Aurrekontua, behin betiko onartuta, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluko 3. atalean adierazitako moduan argitaratuko da.

Bederatzigarrena.- Behin betiko erabakiarekin batera argitaratzea erakunde honetako lanpostu-zerrenda, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 16. artikuluari jarraikiz.

Hamargarrena.- Aldi berean bidaltzea espedientearen kopia bana Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzari.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) Batzordeari aurkeztutako aurrekontu-proiektuaren partiden inguruko laburpena egin du. Azaldu du COVID-19 pandemiaren ondoriozko aurrekontuaren murrizketa, Udalak jasoko dituen diru-sarreraren murrizketaren ondorioa dela; halere, Gobernu Taldearen konpromisoari erantzuteko eta Udalak zorrik ez duenez, bere osotasunean mantentzea aurreikusten da, besteak beste, administrazio batzordeei egiten zaizkien hainbat ekarpen, baita Aranzadi Zientzia Elkarteari Babioko indusketarako egindako dirulaguntza eta Etxaurren ikastolako hobekuntzak ere. Hortaz, gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin likidoarekin finantzatu dira.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu), adierazi du zalantza batzuk dituela. Ez daki Lusiaondoko mediku-kontsulta garbitzeko zenbat diru behar den, baina partidaren 15.000,00 euro daude eta Osakidetzak urtero 10.000 euro ematen ditu; hortaz, defizita dago, eta zinegotzi andreak ez daki noiz transferituko zaion Osakidetzari, gastuak haiek beren gain har ditzaten. Seinaleetarako 500,00 euroko zuzkidurari dagokionez (eta gauza bera errepide eta osasungarrien sareko proiektu baterako 5.000,00 euroko zuzkidurari dagokionez) ez daki ekitaldi honetan erabiliko diren. Adierazi du, gainera, beharbada, orain dietak ordaintzen ez direnez, gastuen partidan gastu gutxiago egongo direla.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio mediku-kontsultaren kontua Osakidetzari pasatzeke dagoela, baina oraindik ez dakitela ezer ere horri buruz, eta, era berean, gastuen aurrekontuan aztertu behar dela ekitaldiko gastuari aurre egiteko zuzkidura. Errepide eta seinaleei dagokienez, ez dago argi egingo diren, baina asmoa ekitaldi honetan egitea da. Jasotzen ez diren dietei dagozkien gastuak murrizteari dagokionez, erantzun du urte amaierara arte ezin dela jakin partidakoarekin nahikoa izango den, ezin delako jakin zenbat bilkura egingo diren.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) azaldu du bere zuzenketetako bi onartu direla: Murgako industrialderako plan integralarekin lotutakoa, eta adinekoen beharrezko azterlana egiteari lotutakoa. Hala ere, COVID-19aren ondoriozko laguntzak



onartzekoari buruzkoa ez da onartu, esan zietenez, aurrekontuarekin ezin zelako egin, ez eta mugikortasun azterlana ere, zeina espero duten urteren batean egin ahal izatea. Bukatzeko, azpimarratu du abstenitu egingo direla aurrekontu-proiektua ez delako modu parte-hartzailean landu. Gainera, testuingurua iazko egoera bera da: beharizan askori erantzun beharra, langabezia, eta abar.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du aburu bera duela Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) aipatutako bizilagunen beharizan guztiei dagokienez, baina aipatu du Udalbatzan daudela Udaleko zerga-bilketaren jaitsiera jorrazteko eta udal zerbitzuak lantzeko. Halaber, jakinarazi du Udalez gain beste administrazio organo batzuk ere badaudela eta zinegotzi andreak aipatutako gaiak horietan erantzun beharko dituztela haiek dutelako gai horien gaineko eskumena.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) jarraitu du esaten EH Bilduk aurkeztutako COVID-19aren ondorioak arintzeko dirulaguntzen inguruko zuzenketa baztertu zutela EH Bilduk adierazi zuelako diruzaintza-geldikina erabiliko zela zuzenketa finantzatzeko, baina, kontua da diruzaintza-geldikina ez dela hasierako aurrekontuaren diru-sarreraren parte; horren ordez, diruzaintza-geldikina erabiltzen da ekitaldian zehar aurrekontu-aldaketak finantzatzeko, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren ondoren. Gaineratu du mugikortasun azterlana egitea baztertu zutela Arabako Foru Aldundiaren ardura delako.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du biztanleriaren mugikortasunari buruzko azken azterlana 2009koa dela eta 2011n birmoldatu zela, baina haiek Aiarako haran osoaren azterlan sakonagoaz eta orokorragoaz ari zirela.

Kontu Batzorde Bereziak eta Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzorde iraunkorrak, 2020ko ekainaren 9an egindako bilkuran, hitzarmen honen aldeko iritzia eman zuten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta erabaki du (EAJ-PNV udal-taldeko eta Aiara Batuz udal-taldeko ordezkarien aldeko botoarekin eta EH Bildu udal-taldeko ordezkarien abstentzioarekin) 2020rako udal aurrekontuaren inguruko idatzi den moduan transkribatutako erabaki-proposamena onartzea.

6.- Kreditu-geldikina gehitzeko 2/2020 espedientearen kontu ematea.- Ondoren, kreditu-geldikina gehitzeari buruzko 2/2020 espedientea onesteko 2020ko maiatzaren 28ko 2020/217 Alkatetza Dekretuaren kontu eman zaio Udalbatzari. Dekretu horrek honako hau dio:

“AZTERTU DA.- Aurreko ekitaldiko kreditu-geldikinak 2020ra luzatutako 2019ko indarreko udal aurrekontuko gastu egoera-orrian gehitzeari buruzko espedientea.

AINTZAT HARTU DA.- Idazkari kontu-hartzaileak adierazitakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 32. artikulua eskatzen dituen baldintzetara egokitzen dela espedientea, bai eta Aurrekontu-Exekuzioaren Udal Arauak ezartzen duenari ere.

*Alkatetzak honako hau **EBATZI** du:*

***Lehenengoa.**- Jarraian adierazitako kreditu-geldikina gehitzea onestea:*



GASTUEN EGOERA-ORRIA

<u>Gastuen partida</u>	<u>Kreditu-geldikinaren deskribapena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
133.601.004	HIRIA BERRONERATZEKO PROIEKTUA LUIAONDOKO BARRENA KALEAN	78.976,32 €.

Gehitu beharreko kredituaren zenbatekoa honako hau da: 78.976,32 euro.

DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

Zenbateko hori honela finantzatuko da:

<u>Diru-sarrerren partida</u>	<u>Deskribapena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
71.001	EUSKO JAURLARITZA. LEADER 2019. HIRIA BERRONERATZEKO PROIEKTUA LUIAONDOKO BARRENA KALEAN	78.976,32 €.

FINANTZAKETA GUZTIRA (GEHITU BEHARREKO KREDITUEN KOPURU BERA):
78.976,32 euro.

Guztira sartu beharreko kredituen-geldikinen kopurua, finantzatzen dituzten baliabideen zenbatekoaren kopuru bera da.

Kreditu-geldikin horren finantzaketa sarrera-konpromisoarekin egingo da, Landareen eta Itsasertzaren Garapena eta Europar Politikako zuzendariaren Ebazpenean oinarrituta, zeinaren bitartez Aiarako Udalarari 100.000 euroko laguntza ematen zaion. Dirulaguntza hori eskatu zen 2019ko abuztuaren 9ko Aginduari jarraikiz, zeinaren bitartez Leader zonaldean sartutako landa-udalerrien sustapena, garapena eta dibertsifikazio ekonomikoa sustatzeko dirulaguntzak arautzen diren. Gainera, agindu hori Euskadiko 2015-2020 landa-garapenerako programaren markoan onetsi zen, Luiaondoko Barrena kalean hiria berroneratzeko proiekturako.

Bigarrena.- *Honako ebazpen hau irmoa eta betearazlea denez eta ez duenez beste prozedurarik behar, Kontu-Hartzaitzak erakundearen aurrekontuen gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondoreekin.*

Hirugarrena.- *Hurrengo bilkuran horren kontu ematea.*

ALKATE-UDALBURUA,

nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Carmen Rojo Pitillas."

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

7.- Kreditu-geldikina gehitzeko 3/2020 espedientearen kontu ematea.- Ondoren, kreditu-geldikina gehitzeari buruzko 3/2020 espedientea onesteko 2020ko maiatzaren 28ko 2020/218 Alkatetza Dekretuaren kontu eman zaio Udalbatzari. Dekretu horrek honako hau dio:



“AZTERTU DA.- Aurreko ekitaldiko kreditu-geldikinak 2020ra luzatutako 2019ko indarreko udal-aurrekontuko gastuen egoera-orrian gehitzeari buruzko espedientea.

AINTZAT HARTU DA.- Idazkari kontu-hartzaileak adierazitakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 32. artikulua eskatzen dituen baldintzetara egokitzen da espedientea, bai eta Aurrekontu-Exekuzioaren Udal Arauak ezartzen duenari ere.

Alkatetzak honako hau **EBATZI** du:

Lehenengoa.- Jarraian adierazitako kreditu-geldikina gehitzea onestea:

GASTUEN EGOERA-ORRIA

<u>Gastuen partida</u>	<u>Kreditu-geldikinaren deskribapena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
342.609.003	ASKOTARIKO INBERTSIOAK (IGERILEKUETAKO ZABALTZEAREN GUNEA ESTALTZEKO OBRA)	104.868,87 €.
	GUZTIRA	104.868,87 €

Sartu beharreko kredituen guztizko zenbatekoa honako hau: 104.868,87 euro.

Zenbateko hori honela finantzatuko da:

DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

<u>Diru-sarreraren partida</u>	<u>Deskribapena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
87000	ERAGINDAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA	55.238,47 €.
71002	EUSKO JAURLARITZA. LEADER 2019. AIARAKO UDAL IGERILEKUETAN ESTALITAKO GUNE BATEN INSTALAZIOA	49.630,40 €.

FINANTZAKETA GUZTIRA (GEHITU BEHARREKO KREDITUEN KOPURU BERA):
104.868,87 euro.

Guztira sartu beharreko kredituen-geldikinen kopurua, finantzatzen dituzten baliabideen zenbatekoaren kopuru bera da.

Espediente honek honako finantzaketa-modu hauek erabiltzen ditu:

- 2019ko aurrekontuaren likidaziotik eratorritako diruzaintza-geldikinaren zati bat obra horretarako: 55.238,47 euro.
- Gainontzekoa, (49.630,40 €) sarrera-konpromisoarekin egingo da Landareen eta Itsasertzaren Garapena eta Europar Politikako zuzendariaren Ebazpenean oinarrituta, zeinaren bitartez Aiarako Udalari 51.924,16 euroko



laguntza ematen zaion. Dirulaguntza hori eskatu zen 2019ko abuztuaren 9ko Aginduari jarraikiz, zeinaren bitartez Leader zonaldean sartutako landa-udalerrien sustapena, garapena eta dibertsifikazio ekonomikoa sustatzeko dirulaguntzak arautzen diren. Gainera, agindu hori Euskadiko 2015-2020 landa-garapenerako programaren markoan onetsi zen, Aiarako udal-igerilekuetan estalitako gune baten instalazioaren obra egiteko.”

Bigarrena.- *Honako ebazpen hau irmoa eta betearazlea denez, eta ez duenez beste prozedurarik behar, Kontu-Hartzaitzak erakundearen aurrekontuen gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondoreekin.*

Hirugarrena.- *Hurrengo bilkuran horren kontu ematea.*

ALKATE-UDALBURUA,

nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Carmen Rojo Pitillas."

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

8.- Kreditu-geldikinari gehitzeko 4/2020 espedientearen kontu ematea.- Jarraian, kreditu-geldikina gehitzeari buruzko 4/2020 espedientea onesteko 2020ko maiatzaren 28ko 2020/219 Alkatetza Dekretuaren kontu eman zaio Udalbatzari. Dekretu horrek honako hau dio:

“AZTERTU DA.- *Aurreko ekitaldiko kreditu-geldikinak 2020ra luzatutako 2019ko indarreko udal-aurrekontuko gastuen egoera-orrian gehitzeari buruzko espedientea.*

AINZAT HARTU DA.- *Idazkari kontu-hartzaileak adierazitakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 32. artikulua eskatzen dituen baldintzetara egokitzen da espedientea, bai eta Aurrekontu-Exekuzioaren Udal Arauak ezartzen duenari ere.*

Alkatetzak honako hau EBATZI du:

Lehenengoa.- *Jarraian adierazitako kreditu-geldikina gehitzea onestea:*

GASTUEN EGOERA-ORRIA

<u>Gastuen partida</u>	<u>Kreditu-geldikinaren deskribapena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
342.609.004	IGERILEKUKO ZABALTZE GUNEA ESTALTZEKO OBRAREN PROIEKTUA ETA ZUZENDARITZA	6.250,86 €.
	GUZTIRA	6.250,86 €

Sartu beharreko kredituen guztizko zenbatekoa honako hau: **6.250,86 euro.**



DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

Zenbateko hori honela finantzatuko da:

<u>Diru-sarrerren partida</u>	<u>Deskribapena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
87001	GASTU OROKORRENTZAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	6.250,86 €

FINANTZAKETA GUZTIRA (GEHITU BEHARREKO KREDITUEN KOPURU BERA):
6.250,86 euro.

Guztira sartu beharreko kredituen-geldikinen kopurua, finantzatzen dituzten baliabideen zenbatekoaren kopuru bera da.

Bigarrena.- *Honako ebazpen hau irmoa eta betearazlea denez, eta ez duenez beste prozedurarik behar, Kontu-Hartzaitzak erakundearen aurrekontuen gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondoreekin.*

Hirugarrena.- *Hurrengo bilkuran horren kontu ematea.*

ALKATE-UDALBURUA,

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Carmen Rojo Pitillas."

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) galdetu du zergatik atzeratu den obra.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio galdera horri jada idatziz erantzun zaiola, eta, beraz, erabaki behar lugetela, idatziz edo Udaltzaren galdetuko duten, lana ez bikoizteko. Halere, erantzun du igerilekuko obra atzeratu dela COVID-19aren ondorioz, bi hilabeteko konfinamenduak fabrikatzaileei eragin dielako. Barrena kaleko obrei dagokienez, erantsi du harrera atzeratu egin dela enpresak labainkortasun-indizea bete behar duelako.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) erantzun du informazio hori idatziz eskatu zutela eta erantzuna jaso zutela, baina ez zaiela adierazi noizko amaituta egon behar diren obrak. Gaineratu du aurrerantzean erabakiko dutela erantzunak idatziz eskatu ala ez.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dituela gogoratzen data zehatzak, baina jakinaraziko dizkiola.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9.- Kontuak ematea: 2019ko urtarrileko, otsaileko eta martxoko kreditu-aldaketak, kontaketa-aktak, kartillen egoera eta gastuen eta diru-sarrerren balantzea. Ondoren, gai-zerrendako puntu honek erreferentzia egiten dion dokumentazio ekonomikoaren berri eman zaio Udalbatzari, eta, halaber, aipatu zaio zinegotzietan bidali zaiela deialdiarekin batera.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.



10.-Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Udalen artean Udalaren gizarte-zerbitzuen (etxez etxeko laguntza zerbitzua izan ezik) prestazioa behin-behinean mantentzeko bigarren luzapenari buruzko Udalbatzaren erabaki-proposamena.- Jarraian, Udalbatzari aipatutako erabaki-proposamenaren berri eman zaio, zeinak honako hau dioen:

"ERABAKI-PROPOSAMENA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARABAKO UDALEN ARTEAN
GIZARTE-ZERBITZUEI PRESTAZIOA BEHIN-BEHINEAN MANTENTZEKO
ERABAKIAREN BIGARREN LUZAPENA.**

IKUSI DA.- Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 42. artikuluan (aurrerantzean GZL) xedatzen da Udalari dagokiola honako funtzio hauek betetzea:

(...)

3) 29. artikuluan zehazturik datozen oinarritzko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik. Lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude arauturik.

IKUSI DA.- GZLren 2. artikuluan ezartzen da gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa, 2016ko abenduaren 26an perfekzionatu zena.

AINTZAT HARTU DA.- Araudiaren eskakizun horien ondorioz, honako gai hauek antzeman dira:

- a) GZLren 42. artikulua, baita Legean jasotako beste erreferentzia arautzaile batzuek ere, udal-eskumena bereizten dute zerbitzua eraginkorki ematearen ekintza beretik.
- b) GZLren helburu argi eta erabakigarria da udal-eskumeneko gizarte-zerbitzuak taldean eman ahal izatea (GZLren 28.2 eta 29.4 artikulua).
- c) Xede hori bereziki nabarmena da Arabako Lurralde Historikoan, zeinetan udalerriek, Gasteizek izan ezik, 20.000 biztanleen atalasea gainditzen ez duten, Aiarako udalerriak ere gainditzen ez duen modu berean.
- d) Prestazio partekatu hori GZLren 36.5 artikuluan aipatzen da, ezartzen baita Gizarte-Zerbitzuen Mapak foru- eta toki-administrazioek zehazten dituzten banaketa geografikoak hartuko dituela aintzakotzat. 2016ko uztailean onetsi zen Arabako Lurralde Historikoko Gizarte-Zerbitzuen Mapa.
- e) Orain arte, Arabako Foru Aldundiak bere kabuz eta abenduaren 26ko 904/2016 Gobernu Batzordearen Erabakiari jarraikiz (abenduaren 21eko organo bereko 765/2018 Erabakiaren bidez luzatu da) eman du udal-zerbitzuen zati bat; izan ere, zerbitzu horien prestazioa, ezarritako aurreikuspenen arabera, udal-eskumenekoa da.



- f) GZLak berariaz aitortzen du administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren beharra, diseinatutakoaren moduko gizarte-zerbitzuen sistema integratu baten berezko ezaugarria baita.
- g) Toki Araubiderako oinarriak arautzen dituen Legearen 31.2.a) artikulua aurreikusten du foru aldundien helburuetako bat honako hau dela: "foru lurralde osoan udal-eskumeneko zerbitzuen prestazio integrala eta egokia bermatzea".
- h) Aiarako Udalak 2017ko urtarrilaren 19an eta 2019ko urtarrilaren 24an jakinarazi zuen bat zetorrela Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 26ko 904/2016 Gobernu Batzordearen Erabakiarekin, zeinaren bitartez onetsi zen 2016ko abenduaren 26tik aurrera gizarte-zerbitzuak ematen jarraitzea, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino biztanle gutxiago duten Udalek aldi baterako kudeatzen ari ziren baldintzetan, 24 hilabeteko epe iragankorrean. Epe horren barruan, mapa sortzeko eraturako erakundeen arteko mahaiak gizarte-zerbitzu guztiak emateko beharrezko baliabide teknikoak, ekonomikoak eta juridikoak proposatuko lituzke, bakoitzari dagokion gaitasun-esparruaren barruan, zeina adierazitako aldi zehar pixkanaka ezarriko litzatekeen. Eta abenduaren 21eko 765/2018 Erabakia, zeina organo berberak 2020ko ekainaren 26ra arte luzatu baitzuen aipaturako abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia.
- i) Aipaturako prozesua oraindik ez da burutu, salbu dagokion etxeko laguntza zerbitzua.

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiaren 222/2020 Erabakia, zeinaren bidez adosten den Lurralde Historikoko Udaletara lekualdatzea abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia **2020ko abenduaren 31ra arte luzatzeko proposamena.** Erabaki horren bitartez gizarte-zerbitzuen behin-behinean mantentzea onartu zen, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino biztanle gutxiago duten udalek aldi baterako kudeatzen ari ziren baldintzetan.

Aintzat hartu da beharrezkoa dela elkarlanean jarraitzea, Udalaren eskumenekoak diren gizarte-zerbitzuak emateko Gizarte-Zerbitzuei buruzko Legea, Zorroari buruzko Dekretua eta Gizarte-Zerbitzuen Plan Estrategikoan aurreikusitako moduan, betiere dena ikuspegi tekniko eta juridikotik, baita eraginkortasun finantzarioaren ikuspegitik ere, egungo Gizarte-Zerbitzuen Euskal Sistemaren arabera.

Eta, datu normatibotik abiatuta, aipaturako Erabakiaren bigarren puntuak ezartzen du bere eraginkortasuna baldintzatuta dagoela; Udal bakoitzak onartu behar du, eta, ondorioz, Arabako Foru Aldundiak ziurtagiri-komunikazio bat bidali behar dio, dagokion udal-organo eskudunaren adostasunaren berri emateko.

Aurreko guztia dela eta, Aiarako Udaleko Udalbatzak honako Erabaki hau onartzea proposatzen da:

LEHENENGOA.- Aiarako Udala Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Batzordearen 222/2020 Erabakiarekin bat datorrela jakinaraztea. Erabaki horren bitartez, adosten da Lurralde Historikoko Udaletara lekualdatzea abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzeko proposamena. Erabaki horren bitartez gizarte-zerbitzuak aldi baterako mantentzea onartu zen, Arabako Foru Aldundiak eta



Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino biztanle gutxiago duten Udalek aldi baterako kudeatzen ari ziren baldintzetan.

***BIGARRENA.**- Alkatetzari eskumenak ematea, erabaki honetan xedatutako guztia garatu eta kudeatzeko gaitasuna izan dezan.*

***HIRUGARRENA.**- Arabako Foru Aldundiari erabaki honen berri ematea, aipatutako testuaren bigarren puntuaren aurreikusitako ondorioetarako.*

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta..-“

Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak, 2020ko ekainaren 9an egindako bilkuran, hitzarmen honen aldeko iritzia eman zuen.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du alde bozkatuko duela, eta gogorarazi du erabaki honetatik kanpo geratu dela etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) azaldu du bigarren luzapena dela; izan ere, gizarte-zerbitzuak antolatzekeo baliabide teknikoak, ekonomikoak eta juridikoak artikulatzeko prozesu hori 2016an hasi zen, eta gaur egun, burutu den bakarra etxez etxeko laguntza zerbitzuaren da, eta gizarte-zerbitzuen mapa ere ez da egin. Amaitzeko, azaldu du luzapenaren alde bozkatuko dutela, baina uste dutela Arabako Foru Aldundiak utzikeria azaldu duela gai honen inguruan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez adostu du ohiko bozketan idatzi den moduan transkribatutako erabaki-proposamena onetsiko duela.

11.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, udal-katalogoaren aldaketarako espedienteari ekiteko, katalogotik kentzeko Arespalditzako Cerrajería jauregiaren ondoko bakartutako eraikina.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio zein den udal-katalogoaren aldaketarako espedienteari ekiteko erabaki-proposamena, katalogotik kentzeko Arespalditzako Cerrajería jauregiaren ondoko bakartutako eraikina.

"UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA

***IKUSI DA.**- 2020ko maiatzaren 7ko 2020/198 Dekretua, Cerrajería jauregiaren ondoko bakartutako eraikina ekonomia-aurri ezartzeko espedientea hasten duena. Eraikina udal-babeseko ondasun higiezin da (oinarrizko babesa) eta indarrean dauden Arau Subsidiarioetan 571 zenbakiarekin dago katalogatuta. Hori horrela dago titularrak eskatu zuelako eta ulertzen da Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 51.7 artikulua baldintzak betetzen dituela, baita eraikina hirigintza-aurri egoeran dagoela errepideen arloko araudia dela eta; izan ere, eraikina zortasun-eremu batean dago partzialki, eta erabat sartuta dago A 3624 errepideko atxikipen-inguruan.*

***IKUSI DA.**- 2020ko maiatzaren 27ko EAeko Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren txostena. Horrek honako hau dio:*



- Cerrajería jauregia ez dago EAEko Kultura Ondarearen erregistroan sartuta.

- Cerrajería jauregia Arau Subsidiarioetan sartzeak ez du esan nahi zuzenean Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasun gisa hartuko denik. Izan ere, ondasun horien definizioa egin ahal izateko arauak oraindik garatu behar dira, eta, beraz, orain arte, 6/2019 Legearen oinarrizko babeserako mailari dagozkion xedapenak ez dira nahitaez aplikatu behar udal-katalogoan sartutako ondasunetan.

- Cerrajería jauregiaren ondoko eraikinen aurriaren aldeko legezko egoera ezartzeko hasitako prozeduran, ez dira sartzen 6/2019 Legean ezarritako desfektazioak eta aurriak. Horiek soilik EAEko Euskal Kultura Ondarearen erregistroan sartutako ondasunetarako daude ezarritik.

- Legezko aurri-egoera ezartzea, kasu honetan, Udalari dagokio soilik, hirigintza legegintzaren preskripzioetan oinarrituta. Horien arabera, ezin da baimendu aurri gisa katalogatutako eraikinak botatzea (2/2006 Legearen 201.3.b) artikulua).

- Soilik udal-katalogoa aldatzean, hortik Cerrajería jauregiko babestutako elementuak kentzeko asmoz, baimendu daiteke horiek botatzea. Aipatutako aldaketa AFAko Arkitektura Ondare Historikoko zerbitzuari eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzari bidali beharko zaio, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 100. artikulua beteta, aipatutakoek dagokion txostena igortzeko.

- Informazio gehigarri berririk izan ezean, CPCVko zerbitzu teknikoan izapidea txosten honetan adierazitakora atxikiko da. Hau da, ez litzateke inongo arazorik egongo deskatalogatzea egiteko eta ondoren ondoko eraikinak botatzeko, ez dutelako ondare-balio garrantzitsurik.

Alde batetik, Arespalditzako Cerrajería jauregiaren ondoko eraikina aurri ekonomiko gisa ezartzeko proiektua LKS Ingeniería S. Coop enpresak idatzi zuen 2019ko abenduan. Bestetik, udal-teknikariek 2020ko apirilaren 22an txosten bat idatzi zuten. Biek adierazten dute eraikina abandonaturik dagoela, oso zaharkiturik eta erabili gabe dagoela; ez dago ordenaturik, errepideen arloko araudiak ezartzen dituen baldintzengatik. Era berean, bi txostenek justifikatu egiten dute beharrezko konponketen kostuak mantentzerako betebeharrak normalaren muga gainditzen duela; izan ere, eraikina hirigintza-aurri egoeran dago errepideen arloko araudia dela eta, zortasun-eremu batean dagoelako partzialki, eta erabat sartuta dagoelako A 3624 errepideko atxikipen inguruan.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren txostenak dioena alde batera utzi gabe, ez dira sartzen 6/2019 Legean ezarritako desfektazio eta aurriak (51.7 art.). Legez aurri-adierazpena ezartzea Udalari soilik dagokio, hirigintza legeriaren preskripzioen arabera, eta ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 201. artikularen arabera legezko aurri egoera ezarri dezake.

Gehitu egin da Amurrioko Jabetza-Erregistroko ohar sinple bat eta bertan eraikina INSTITUTO ASILO SAN JOSE SAN BUENAVENTURA fundazioaren izenean dago; horrek eskatu du eraikina aurri egoeran dagoela adierazteko (Amurrioko Jabetza-Erregistroko 8656. zenbakiko finka, 38. folioa, 46. liburua, 361. liburukia). Horrek



lokabetzen du eta ez zaizkio karga edo benetako eskubideak eskatzen Cerrajería jauregiaren ondoko eraikinarekiko. Aipatutakoa espediente honen xedea da.

Gainera, ez dago jasota eraikinean bizilagun edo okupatzaileen bat dagoenik.

Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 27ko txostenak adierazi duen moduan, ondoko eraikinak udal-katalogoan sartuta daudenez, hori aldatuta soilik baimendu daiteke eraikina eraistea, hori Cerrajería jauregiaren babeseko ondoko elementuetatik ezabatzeko. Dena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 100. artikulua araberaz izapidetu behar da. Horrek baimendu egiten du katalogoa aldatzea udal-ordenantzentzat tokiko araudian ezarritako prozedura jarraituta eta eskatzen du jendaurrean jarri bitartean AFaren eta Eusko Jaurlaritzaren kultura ondarearen sail eskudunei txosten bat eskatzeko.

Aintzat hartuko da Cerrajería jauregiaren ondoko eraikina udal-katalogotik kentzea justifikatuta egongo dela, maiatzaren 27ko txostenak dioen moduan, eraikin xumea delako eta ez duelako ez balio arkitektoniko ez eraikuntza-balio gehiegirik; gainera, ez dago ongi mantenduta eta ezin da berrerabili, eraikina konpontzea errepideen arloko araudiak mugatzen duelako.

AINTZAT HARTU DA.- 2005eko otsailaren 17ko 20. zenbakiko ALHAOko indarrean dauden Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen 221.3 artikuluan ezarritakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 100. eta 201. artikuluetan ezarritakoarekin lotuta eta Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 29. artikuluekin lotuta.

Udalbatzak honako erabaki hau hartzea proposatu da:

Lehenengoa.- Udal-katalogoa aldatzeko espedientea irekitzea, aipatutako Cerrajería jauregiaren ondoko bakartutako eraikina katalogotik kentzeko, balio arkitektoniko edo konstruktibo gehiegirik ez izateagatik; gainera, oso gaizki mantendu da eta ezin da berrerabili, eraikina konpontzea errepideen arloko araudiak mugatzen duelako.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea ematea 30 laneguneko epean. Horretarako, ALHAOn iragarki bat argitaratuko da eta jabetzari jakinarazpen pertsonala egingo zaio, erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Halaber, jendaurrean jartzeko epean eskatzea AFAko Arkitektura Ondare Historikoko Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzari txosten bat egiteko.

Hirugarrena.- Cerrajería jauregiaren ondoko bakartutako eraikinak aurrigo egoeran ezartzeko espedientearekin aurrera egitea eta horri gehitzea EAEko Euskal Kultura Ondarearen zentroko maiatzaren 27ko txostena. Ulertzen da, Eusko Jaurlaritzak adierazi duen moduan, eraikina ez dela oinarritzako babeseko ondasun higiezin eta ez dela egokia 6/2019 Legean ezarritako desfektazio eta aurria, nahiz eta ekonomia- eta hirigintza-aurri gisa ezarri dela justifikatu den arren; beraz, ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 201. artikulua araberaz, legez aurrigo ezarri daiteke.

Gainera, aipatutako txostena jabetzari helarazi beharko zaio eta 15 laneguneko epea eman nahi adina alegazio aurkezteko edo aurrigo-adierazpenaren espedientean sartzeko nahi duen dokumentazioa aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio epea igaro ondoren alegaziorik aurkeztu ezean, eraikina aurrigo egoeran ezarritako duen adierazpena igorriko dela,



Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 201. artikulua arabera. Eta nahiz eta aurre-adierazpena egin ezin den eraikina eraitsi udal-katalogoan dagoelako, hori udal-katalogotik kentzeko espedientea ebatzi ondoren, Arabako Foru Aldundiari eraisteko baimena eskatuko zaio.

Laugarrena.- *Hau guztia jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako eta AFAko kultura-ondarean eskumenak dituzten organoei eta jabetzari; azken biei emango zaien jakinarazpenean Eusko Jaurlaritzaren 2020ko maiatzaren 27ko txostena erantsiko zaie.*

Arespalditzan, ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2020ko ekainaren 9ko bilkuran akordio hau hartzearen aldeko txostena eman zuen.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) esan du azkenean ez zitzaizela galdetu teknikariei non dagoen bigarren eraikina, baina alde bozkatuko dutela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena onartzea, aurkeztu den idatzitako moduan.

12.- Ekainaren 28ko sexu- eta genero-aniztasunaren nazioarteko egunaren Erakunde-Adierazpenaren proposamena. Ondoren, Udalbatzari jakinarazi zaio zein den ekainaren 28ko sexu- eta genero-aniztasunaren nazioarteko egunaren Erakunde-Adierazpenaren proposamena.

***"EKAINAREN 28KO ERAKUNDE-ADIERAZPENAREN PROPOSAMENA
SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA
AIARAKO UDALA***

Aurten ere, 1969ko ekainaren 28ko goizaldean Stonewall Inn tabernan gertatutakoaren oroimenak bultzatuta, beste behin bildu gara LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak erreibindikatzeko eta aniztasunetik abiatuta errespetuaren eta bizikidetzaren alde egiteko.

Orain arte lortutako guztia ospatu eta oraindik lortzeko daudenak nabarmendu nahi ditugu.

Azpimarratu nahi dugu aniztasuneko politika publikoak ez daudela soilik LGTBIQ+ kolektiboarekiko zuzenduta, herritar guztiei zuzentzen dizkiegu, eskubideak eta errespetua bermatzea herritar guztien egitekoa delako.

Gaur, ez dugu ahaztu behar Euskal Herrian egunero LGTBIQ+ mugimendua eta mugimendu feminista osatzen duten pertsonen borroka aitortu behar dugula, edozein bereizketa modu ezabatuzko lan egin dutela eta gizartea benetan justua, berdinzalea eta feminista izan dadin ikaragarri lan egiten dutela. Gure konpromiso politikoak egunerokoa izan behar du beren borrokaren alde egiteko, ez dira soilik adierazpenak izan behar.



Horretarako, Aiarako Udalak konpromisoa hartu du, gainerako aginpide publikoekin, estamentu ofizialekin eta hezkuntza zentroekin, LGTBIQ+ komunitatearentzako gizarte bidezkoago eta berdintsuago bat lortzeko aukera emango duten neurriak zehazten jarraitzeko. Horrez gain, 2020an, Arabako Foru Aldundiarekin lanean ari gara lurraldeko LGTBIQ+ Diagnostikoa sortzeko; bertan, elkarrizketak egingo dira kolektiboaren egoera jasotzeko, baita aniztasuneko politika publikoen egoera aztertzeko ere; ekintza-proposamenak egingo dira eta horiek guztiak gure politika publikoak diseinatzean hartuko ditugu kontuan.

Aurreko guztia aintzat hartuta, Aiarako Udalak lehentasunezko zat jotzen ditu honako arlo hauek:

- Hezkuntzan sexu eta genero aniztasuna integratzea, alor horretan ideia berriak sortzen laguntzea, eta sexu orientazioagatiko eta genero nortasunagatiko eskola jazarpenari aurre egiteko prebentzio lanaren oinarriak ezartzea.

- Emakume lesbiana agerian jartzea, haren errealitatea onartzeko eta gizartearen legitimatzeko, eta haren eskubideak askatasunez baliatzeko neurriak abian jartzeko eskatzea.

- Esparru heteronormatiboaren alternatiba eta aniztasunaren espektro zabalaren parte izanik, legitimitatea eta errespetua behar duten sexualitate guztiak agerian jartzea.

- Sarritan alde batera uzten diren biztanle sektoreak, hala nola hirugarren adinekoak edota dibertsitate funtzionala dutenak, agerian jartzea, eta haien sexu eta afektibitate aniztasuna bizitzeko eskubidea bermatzea.

Hori horrela, Aiarako Udalean,

- 1. LGTBIQ+ pertsonen eskubideen defentsa integrala eta baita bere garapen egokia lortzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak bermatuko dituen EAEn berariazko araudia ezartzeko interpelatuko dugu.*
- 2. Beharrezko baliabide guztiak eman eta bideratuko dizkiegu diskriminazioa jasaten duten LGTBIQ+ pertsona guztiei, bereziki adin, arraza, jatorri, administrazio egoera, etab. dela eta zaurgarritasun handiagoko egoeran daudenei.*
- 3. Gure eskumenen esparruan, beste toki batzuetatik etorri behar izan diren eta sexu-orientazio eta/edo genero-identitateagatik jazarpena jasaten duela argudiatzen duten pertsonen erabateko arreta ematea erraztuko dugu.*
- 4. LGTBIQ+ eta mugimendu feministekin etengabeko komunikazio- eta lankidetzak mantenduko ditugu eta ekimenak elkarrekin gauzatzeko*



baliabideak emango ditugu. Era berean, aurreko ekintza guztiak mugimendu horiekin kontrastatu beharko dira.

5. *LGTBIQ+ eskubideen errespetua ziurtatuko duten berdintasun eta aniztasun politika publikoak bultzatuko ditugu, LGTBIQ+ fobiaren aurka egingo dugu eta kolektiboaren borroka bistaratuko ditugu. Horien barruan, parte hartzen jarraituko dugu Etxaurren Ikastolako hezkidetza proiektuan, sexu eta genero aniztasunaren ikuspuntua txertatuta baitago. Gainera, Arabako LGTBIQ+ Diagnostikoan laguntzen jarraituko dugu.*
6. *Errespetua eta elkarbizitza oinarri izango dituen jendartea lortzeko lan egingo dugu, homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia desagerrarazteko lan egiten duten pertsona eta eragileekin elkarlanean.*
7. *Ostadar bandera ezarriko dugu udaletxeko balkoian, kolektiboaren berdintasunerako borrokaren sinbolo gisa, eta, pertsona, elkarte, Gobernu Kanpoko Erakunde eta botere publikoek, gure gizarteak pertsona guztien giza eskubideak lortzeko bidea egin dezan, egiten duten ahalegina erakutsi. Era berean, udalerriko administrazio batzarrak gauza bera egitera gonbidatuko ditugu.*
8. *LGTBIQ+ baliabideei buruzko gida banatuko dugu herritarren artean, aniztasunaren aldeko mezua zabaltzen jarraitzeko.*
9. *LGTBIQ+ komunitatearen inguruan sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko jarduerak antolatuko eta koordinatuko ditugu eta herritarrak horietan parte hartzera animatuko ditugu.*
10. *Erakunde-adierazpena udal-webgunean argitaratuko da.*

Aiara, 2020ko ekainaren 28a”.

Alkate jaunak adierazi du adierazpena Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordera eraman zela 2020ko ekainaren 9ko batzordean. Bertan, adierazpenari ekarpenak egiteko aukera eman zen, horiek osoko bilkura egin baino lehen sartzeko. Dena den, ez da ekarpenik egon.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, ekainaren 28ko sexu- eta genero-aniztasunaren nazioarteko egunaren Erakunde-Adierazpena onartzea idatzia izan den moduan.



13.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.- Jarraian, 2020/204 eta 2020/252 (biak barne) bitarteko Alkatetza Dekretuen berri eman zaio Udalbatzari, eta horien helburua, laburki azalduta, honako hau da:

" ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA.-

2020/204 ALKATETZA DEKRETUA - Eulen SA.- Aiarako herritarrei maskarak hornitzeko kontratuaren esleipena.

2020/205 ALKATETZA DEKRETUA - Aiarako Kuadrilla.- Gastu orokor eta beste batzuegatik ekarpenak onartzea, 2/2020.

2020/206 ALKATETZA DEKRETUA - Etxaurren Ikastola.- Martxoko nominak ordaintzea talde psikopedagogikoari eta bi urtekoen gelako laguntzaileari.

2020/207 ALKATETZA DEKRETUA - Onartzea erregistratutako fakturen F/2020/7 kontabilitate-zerrenda.

2020/208 ALKATETZA DEKRETUA - Etxaurren Ikastola.- Apirileko nominak ordaintzea talde psikopedagogikoari eta bi urtekoen gelako laguntzaileari.

2020/209 ALKATETZA DEKRETUA - Udaleko langileak berrantolatzea COVID-19aren deseskaladan.

2020/210 ALKATETZA DEKRETUA - ISS Facility Services SA.- Udal-eraikinen garbiketa zerbitzua berrantolatzea.

2020/211 ALKATEA DEKRETUA - Elkarkidetzaren Pentsioak.- Likidatze-faktura onartzea, 2020ko maiatzari dagokiona.

2020/212 ALKATETZA DEKRETUA - Langileen eta alkatearen nominen hilabeteko txostena onartzea, 2020ko maiatzari dagokiona.

2020/213 ALKATETZA DEKRETUA - Talde Politikoei ekarpen ekonomikoa, 2020ko maiatzari dagokiona.

2020/214 ALKATETZA DEKRETUA - A.J.U.Z.- Arespalditzan etxola birgaitzeko obra-lizentzia ematea.

2020/215 ALKATETZA DEKRETUA - N.I.M.- Etxegoienetik Amurrioko "Los Trigueros" baserriraino ur-hornikuntzarako udalaren obra-lizentzia ematea.

2020/216 ALKATETZA DEKRETUA - J.M.- Z.L.- Murgako etxebizitzarako sarrera hormigoitzeko obra-lizentziaren luzapena ematea.

2020/217 ALKATETZA DEKRETUA - Kreditua txertatzeko 2/2020 zenbakiko espedientea onartzea.

2020/218 ALKATETZA DEKRETUA - Kreditua txertatzeko 3/2020 zenbakiko espedientea onartzea.

2020/219 ALKATETZA DEKRETUA - Kreditu-geldikina txertatzeko espedientea onartzea.

2020/220 ALKATETZA DEKRETUA - J.A.B.P.- Arespalditzako lursail baten perimetrara ixteko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

2020/221 ALKATETZA DEKRETUA - JDU.E.- Kexaan dagoen etxebizitza baten tximinia aldatzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

2020/222 ALKATETZA DEKRETUA - Lantenoko Administrazio Batzarra.- Hondakinen



kudeaketarako fidantza eskatzea, obra-lizentzia emateko sakabanatze-eremu gisa eskolen atzeko espazioa egokitzeko.

2020/223 ALKATETZA DEKRETUA - I.B.E.ren ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUA, ASKOTARIKO ZERBITZUEN LANGILEA.

2020/224 ALKATETZA DEKRETUA - K.B.M.- Hiri-ordena berritzeko espedientearen ebazpena.

2020/225 ALKATETZA DEKRETUA - Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea, Luiaondon ura banatzeko sarearen eta saneamendu sarearen berritze-obra egiteko.

2020/226 ALKATETZA DEKRETUA - MC.U.M.- Udalaren obra-lizentzia ematea Olabezarren dagoen etxebizitzaren estalkia berritzeko.

2020/227 ALKATETZA DEKRETUA - J.B.M.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Menagarain etxebizitza bat eraikitzeko obra-lizentzia emateko.

2020/228 ALKATETZA DEKRETUA - Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- Ur-andelera sartzeko egokitzapenaren obra egiteko epearen luzapena ematea.

2020/229 ALKATETZA DEKRETUA - A.B.LL.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Olabezarren garajeak eta egurtegia jartzea eta hormigoizko azpiharria jartzeko obra-lizentzia emateko.

2020/230 ALKATETZA DEKRETUA - Nortegas Energía Distribución SAU.- Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 1/2020.

2020/231 ALKATETZA DEKRETUA - Ned Suministro GLP SAU.- Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 1/2020.

2020/232 ALKATETZA DEKRETUA - Acciona Green Energy Developments SLU Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 1/2020.

2020/233 ALKATETZA DEKRETUA - L.R.L.- Zuhatzako eraikin baten estalkia birgaitzeko obrarako hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea.

2020/234 ALKATETZA DEKRETUA - J.G.A.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Murgan dagoen etxebizitzaren estalkia birgaitzeko udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

2020/235 ALKATETZA DEKRETUA - Dokumentazio gehigarria eskatzea Etxegoieneko Administrazio Batzarra.- Etxegoieneko bidea hobetzeko obraren hondakinen kudeaketarako fidantza itzultzeko eskaera izapidetzeko.

2020/236 ALKATETZA DEKRETUA - A.R.L.C.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Soxoko zuhain-biltegia eraikitzeko obraren hondakinen kudeaketarako fidantza itzultzeko.

2020/237 ALKATETZA DEKRETUA - L.R.L.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Zuhatzako eraikin baten estalkia birgaitzeko obra-lizentzia izapidetzeko.

2020/238 ALKATETZA DEKRETUA - T.G. gizarte-segurantza.- 2020ko apirilko kuota ordaintzea.

2020/239 ALKATETZA DEKRETUA - Alday Ongintzako Fundazioaren 2020ko urtarrileko gastuak onartzea.

2020/240 ALKATETZA DEKRETUA - Etxaurren Ikastola.- 2020ko maiatzeko nominak ordaintzea talde psikopedagogikoari eta bi urtekoen gelako laguntzaileari.

2020/241 ALKATETZA DEKRETUA - JM.M.O.- Murgan dagoen 4. poligonoko 146. eta



147. lursailetan abere-itxitura jartzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

2020/242 ALKATETZA DEKRETUA - Amurrioko Jabetza-Erregistroa.- Olabazarreko 4. poligonoko 618. lursailari dagokion hirigintza-txostena onartzea, 2020-04-27ari dagokiona.

2020/243 ALKATETZA DEKRETUA - Opellorako Administrazio Batzarra.- Opellorako edateko uraren sarea berritzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

2020/244 ALKATETZA DEKRETUA - R.S.O.- Udalaren obra-lizentzia ematea Arespalditzako Eliza auzoko 18. zenbakian dagoen eraikingintza-garajean bi ate jartzeko.

2020/245 ALKATETZA DEKRETUA - JM.R.D.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Salmantonen dagoen etxebizitzaren estalkia birgaitzeko obra-lizentzia izapidetzeko.

2020/246 ALKATETZA DEKRETUA - FJ.A.G.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Luiaondoko La Torre kaleko 13. zenbakiko eraikinaren aurri-adierazpenerako izapiderako.

2020/247 ALKATETZA DEKRETUA - Agiñagan harri-lubeta eraikitzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

2020/248 ALKATETZA DEKRETUA - Luiaondoko Padura kaleko 37. zenbakiko Etxejabeen Elkartea.- Eraikinaren fatxada birgaitzeko, bi teilatu-hodi jartzeko eta bi esekitoki margotzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

2020/249 ALKATETZA DEKRETUA - Izoriako Administrazio Batzarra.- "Babio" mendian kanadar pasabideak jartzeko obra-lizentzia ematea.

2020/250 ALKATETZA DEKRETUA- JA.S.S.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Murgako Aspitueta auzoko 32. zenbakiko etxebizitzaren ondoko espaloia berrizeko obra-lizentzia izapidetzeko.

2020/251 ALKATETZA DEKRETUA - Izoriako Administrazio Batzarra.- "Los Asnos" mendia ixteko obra-lizentzia ematea.

2020/252 ALKATETZA DEKRETUA - MA.H.L.- Izoriako 5. poligonoko 208. lursailean oilategi bat jartzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

14.- **Eguneko gai-zerrendatik kanpoko gaia.-** Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) Udalbatzari jakinarazi dio bilkura honen eguneko gai-zerrendan jarraian aipatuko duen gaia sartu behar dela premiazkoa delako. Gaia "**AIARA UDALERRIKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO KONTRATUA**" luzatzeari buruzkoa da. Izan ere, kontratua **2020ko irailaren 14an** amaituko da eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera ezartzera eraman gaituen duen osasun-egoera dela eta, kontratuaren esleipen berria atzeratu egingo da, aipatutako dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak ezartzen dituen administrazio-epene eteteagatik (Indargabetutako xedapena; 2020ko ekainaren 1ean sartuko da indarrean, maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 2. xedapen indargabetzaile bakarraren bidez).

Udalbatzak aho batez erabaki du, ohiko deialdian, gai hau eguneko gai-zerrendan sartzea, premiazkoa delako. Beraz, eztabaidatu eta bozkatu da.



14.1.- "AIARA UDALERRIKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO KONTRATUA" LUZATZEA.- Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du agian ez dagoela aipatutako kontratuaren likidatzea garaiz amaitzeko denborarik egongo, eta, horregatik, COVID-19ari lotutako aipatutako legeriara jo da, horrek kontratua luzatzeko baimena ematen duelako.

Azaldu du pleguetan lanean ari direla eta luzapena kontratu berria gauzatzen den arte soilik izango dela, eta, gehienez ere, bederatzi hilabetekoa.

IKUSI DA.- Aiarako udalerriko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua esleitzeko kontratuaren laugarren atala. Hori 2016ko irailaren 12an sinatu zen, Comercial de Limpiezas Villar SA enpresarekin (gerora ISS FACILITY SERVICES SA enpresari laga zitzaion kontratua). Kontratuan **LAU URTEKO** epea ezartzen da **kontratua sinatzen denetik**, eta ezarrita dago bi alderdien erabakiz luzatu daitekeela gehienez ere bi urtez (urte bateko bi luzapen).

IKUSI DA.- Ondorioz, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluko 4. eta 5. ataletan ezarritakoaren arabera, **aipatutako kontratua 2020ko irailaren 14an amaituko dela**, baina urteko luzapenak izan ditzakeela.

IKUSI DA.- ISS FACILITY SERVICES SA enpresak Udalari jakinarazi diola kontratuaren luzapenari uko egiteko asmoa duela eta 2020ko abuztuaren 31n amaituko duela.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak kontratu hau lizitaziora aterako duela berehala, dagozkion klausula administratibo espezifikoak sortu bezain laster.

Hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren (eta horren ondorengo luzapenen) bidez alarma-egoera ezartzea eragin duen orain dugun osasun-egoera dela eta, kontratu horren esleipen berria atzeratuko da, sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko administrazio-epeak eten direlako (hori aipatutako dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak ezarri zuen).

IKUSI DA.- Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34.1 artikulua, ezohiko premiazko neurriak ezartzen dituena COVID-19ak izango duen inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egitekoa. Horrek honako hau ezartzen du: "... Gainera, segidakoak diren **zerbitzu- eta hornikuntza-kontratu publikoetan, kontratua amaitzean ez bada zerbitzua ematea bermatuko duen kontratu berria sinatu**, COVID-19ak sortutako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritakoagatik kontratazio-prozedura eten delako eta ezin delako dagokion kontratu berria sinatu, **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4 artikulua azken paragrafoan ezarritakoa aplikatu ahal izango da, aipatutako espediente berriaren lizitazioa noiz argitaratu zen aintzat hartu gabe**.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4 artikulua kontratuen luzapena aipatzen du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, honako hau erabaki du:



LEHENENGOA.- Luzatzea "AIARA UDALERRIKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO KONTRATUA". Gaur egun, Udalak kontratu hori ISS FACILITY SERVICES SA enpresarekin du sinatuta **kontratu berria gauzatzen hasten den arte. Hori behar bezala jakinaraziko da eta gehienez ere bederatzi hilabeteko epean, iraungi denetik zenbatzen hasita**. Orain kontratuan dauden gainerako baldintzak mantenduko dira.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea ISS FACILITY SERVICES SA enpresari, alegia, gaur egun kontratua esleituta duen enpresari.

15.- Eskaerak eta galderak.-

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) bi galdera egin ditu:

- Galdetu du Mandaguari dagokionez adostasun faltari buruzko WhatsAppa atera den, abeltzainei isunak egon daitezkeela ohartarazteko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du bihar bidaliko dela.

- Galdetu du udalekuak egiteko aukera aintzat hartu den. Adierazi du errealitatea ikusita, momentu konplexua dela eta ez dela onena, baina horiek egiteko aukeraren bat aztertu daiteke, nahiz eta modu ezberdinean egin.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du haiek ere uste dutela aukeraren bat aztertu beharko litzatekeela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du orain arte ez badela aztertu inongo modurik, berandu dela. Edonola ere, uste du igerilekuak irekitzea bideragarria badela, eta udalekuak egitea ere posible izango zela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du gaia asko landu dutela, baina ez dela konponbiderik aurkitu jarduera osasunerako arriskurik gabe gauzatzeko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) honako galderak edo eskaerak egin ditu:

- Eskatu du udalekuak eremu irekietan egiteko aukera aztertzeke, edo jende gutxiagorekin egiteko aukera aztertzeke; izan ere, guraso batzuek behar dute. Dena den, Alkatetzak ezetz badio, ezetz da, Aiara Batuz eta EH Bildu udal-taldeek ez dutelako gehiengoa.
- Galdetu du zeri egiten dion erreferentzia lurraren kalitateari buruzko 1649. zenbakiko sarrerak.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du begiratuko dela eta helaraziko zaiola.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du sarrerak erreferentzia gutxirekin deskribatzen direla.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du edonola ere, udalera etorri daitezkeela eta galdetu dezaketela, irekita dagoelako 09:00etatik 14:00etara.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) galdetu du ez dabilen ordenagailu horren bidez inoiz sartzeko aukera dagoen edo ez. Eskatu du ere sarreraren deskribapena zehatzagoa izateko gaiari dagokionez.

- Galdetu du zein den gaur egun Haranean zuntzaren hedaduraren egoera; uztailetik galdetzen ari da. Gaineratu du eskatzen duena Haran osoko egoera erreala dela, antzeman diren arazoak barne. Adierazi du orri bat jaso duela, baina zati bat ez dela ulertzen erabilitako termino teknikoengatik. Era berean, atal bat gauzatzen ari dela adierazten da eta hori ez da egia. Amaitzeko, adierazi du bidalitako idatzia ez dela errealitatearekiko zuzena eta informazioa falta dagoela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du koadroan amaitutako herriak agertu daitezkeela, nahiz eta guztiz amaiturik ez egon. Izan ere, hiru organismo daude sartuta zuntza jartzeko kudeaketan. Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du behin baino gehiagotan bere herriko zuntzari buruzko galderak egin izan dituela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du ez dela bere arazo pertsonala, Ozekan etxeren batek ez duela konexiorik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du gauza bat banda zabala dela eta beste bat zuntz optikoa; adierazi du etxebizitza batzuk ez direla zuntz optikoaren bidez konektatuko, uhinak jasoko dituzte Menoion jarritako errepikagailu baten bidez. Azken hori da Ozekan jasoko duten zerbitzua. Horrez gain, adierazi du, Estatuan, higiezin unitate bakoitzeko lanak esleitzen direla. Horregatik hartu ditzakete, adibidez, Arespalditzako 159 etxebizitza eta Luiaondoko 5. Amaitzeko, adierazi du haiek ere ez daudela ados higiezinak esleitzeko modu horrekin. Adierazi du baserri batek banda zabala izango duela titularrak konexio hori eskatzen badu. Azaldu du herrien egoeran interesa izan dutela eta Administrazio Batzarrekin harremanetan jarri direla. Erretes Lantenon, adibidez, lursailen bat okupatu behar da eta jabeak hori eten zuen, Arespalditzan ere arazo bat egon zen bere finkan sartzen uzten ez zigan jabe batekin. Amaitzeko, azaldu du ez dela posible Aiarako baserri guztien egoera zein den jakitea.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) honako esku-hartze hau egin du:

- Udal-aurrekontuei dagokionez, adierazi du badakitela 2020rako TEFFF jaitsiko dela, baina egin behar dena fiskalitatea jaitea dela, eta errenta handiagoa dutenei karga handiagoa ezartzea; dena den, badirudi Foru Aldundiak ez duela ulertzen.

Batzordeetan jada eztabaidatutako gaiak bilkuran errepikatzeari dagokionez, uste du hori gertatzen dela oraindik ez direlako publikoak Informazio Batzordeak, eta, bere taldean, herritarrek batzorde horietan zer eztabaidatzen den jakitea nahi dute.

Gentza Alamillo Udatea alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du eta adierazi du fiskalitatearen gaiari dagokionez, horren inguruko bi mozioak jada eztabaidatu zirela,



baina fiskalitatea dagoena dela, eta bi urte barru fiskalitatea Batzar Nagusian eztabaidatuko dela.

Galderak errepikatzeari dagokionez, alkate jaunak erantzun du ez duela inolako arazorik erantzuteko, baina galderak idatziz eta ahoz eskatzen zaizkiola eta kudeaketa bikoizten dela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du galderak idatziz egin zirela momentu hartan ez zegoelako bilkurarik. Adierazi du normala dena zer erantzun den bilkuran esatea dela, eta batzuetan ez zaiola galdetutakoari erantzuten. Amaitzeko, adierazi du uste duela ez dagoela gaizki gaiak bilkuretan errepikatzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du idatziz galdetzean, idatziz erantzuten dela, sistematika bat ezartzeko. Dena den, bietara erantzun da.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du idatziz erantzun den beste gaietako bat Aiara Zainduz ekimenaren lankidetzaz-eskaintza dela. Adierazi du esan zitzaizela norbaitekin harremanetan jarri zirela, baina ez dakite norekin.
Horren inguruko idatzi bat irakurri du:

UDALAREN JARRERA AIARA ZAINDUZ EKIMENAREN PROPOSAMENAREKIKO

Osasun-krisialdiari aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak Guztion Artean ekimena bultzatu du, eta Foru aldundiak, Etxean Zurekin ekimena. Azken horrekin etxeko laguntza zerbitzua indartzen dute.

Aiarako Udalak bi tresnak erabili ditu Aiarako herritarrei laguntzeko, baina alde batera utzi ditu herriko gizarte-ekimeneko beste ekimen batzuk. Ez dugu ulertzen zergatik, are gutxiago orain dugun egoera larrian.

COVID-19aren krisialdia sortu bezain laster, konfinamendua ezarri bezain laster, Aiarako boluntario talde batek Aiara Zainduz ekimena sortu zuen horren egoera zailean laguntza behar dutenak babesteko.

Ekimenak ematen zituen zerbitzuak Udalari eskaini zitzaizkion, baina hemen, ez dugu kontuan hartu eta ez diegu ezta erantzun ere egin. Ez da ezer esan Aiarako herritarrei laguntzeko proposatutako ekimen baten aurrean.

Askotan entzun izan dugu udal-gobernu honek talde guztiekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartzen duela, baina errealitatea da proposamenak kontuan hartu eta horiei erantzutea horien jatorriaren araberakoa dela. Zein da arrazoia ez bada orain aipatutakoa?

Lankidetzaz edozein gizarterako altxorra da. Komunitate batean, bizi dugun krisialdi honetan lagundu nahi duen pertsona talde bat izatea eta guk bere proposamenari erantzuteko gai ez izatea oso ardura eta sentsibilitate falta handia iruditzen zaigu udal-gobernuaren aldetik, eta ezin dugu ulertu honelako momentu batean.

Zer egin du laguntzeko nahia adierazi duen pertsona talde horrek Udalak ez erantzuteko? Zergatik utzi da alde batera? Zein da horrelako jarrerekin gure gizarteari bidaltzen ari garen mezua? Hobea dela erakundeek tresnak erabiltzea doan lagundu nahi duten boluntarioekin baino?"



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Eta jorratzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du zortziak eta hogeita hamahiru direnean. Eta landutakoa jasota gera dadin, akta hau eman da, Arespalditzan, bi mila eta hogeiko ekainaren hamabostean. Nik, idazkaria naizen honek, guztiaren fede eman dut.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA

Sin.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas.